

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GUARDIA-ARABAKO ERRIOXAKO KUADRILLA

Titularrari ibilgailua bide publikotik kentzeko eskatzea

1/2021 espedientea

Desegindako Talleres Martínez enpresaren jabeei ezin izan zaie jakinarazpen pertsonala egin, VI-2361-Y matrikula duen ibilgailuaren jabea baita; non bizi den ez jakitean; eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 44. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, interesdunari ibilgailua bide publikotik kentzeko agindua jakinarazi zitzaien.

Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillak abandonatutako ibilgailuari buruz izapidetzen ari den espedientea ikusita:

Matrikula: VI-2361-Y

Modeloa: BMW 325T

Titularra: Talleres Martínez (Eltziego).

Jakinarazten dizugu Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillako bulegoetan eskuragarri dituzula abandonatutako ibilgailu gisa izapidetutako espedientea eta, zehazki, Lehendakartzaren Ebazpena 15/2021, zeinean adierazten baita aipatutako ibilgailua hiri-hondakintzat jotzen dela eta halakotzat kendu eta tratatzeko baimena ematen dela, bai eta zehapen-espedientea irekitzeko baimena ere. Halaber, jakinarazten zaizu entzunaldirako eskubidea duzula, prozeduran pertsonatzeko eskubidea duzula, eta hurrengo egunetik aurrera hamar eguneko epean argitaratu ahal izango dituzula alegazioak.

Epe horretan alegaziorik aurkezten ez bada, proposamen hori behin betikotzat joko da.

Bestalde, jakinarazten zaizu eta eskatzen zaizu ibilgailua hamabost eguneko epean Eltziegoko Rehoyos industriadetik kentzeko, eta ohartarazten dizugu, hori egin ezean, erakunde honek subsidiarioki egingo duela, hiri-hondakin gisa tratatuko dela eta ibilgailuak tratatzeko zentro baimendu batera eramango dela, ondoren suntsitu eta deskontaminatzeko, 6/2015 Legearen 106. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Horren berri ematen dizugu, jakinaren gainean egon zaitezten eta ondorioak izan ditzan, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 82. artikuluaekin bat etorritik. Jakinarazten dizugu izapide-egintza bat dela; eta beraz, ez dela bidezkoa haren aurkako errekurtsorik jartzea.

Egintza behin betikoa bada, ezarritako epean alegaziorik aurkeztu ez duelako, epe hori igarotakoan aukerako berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango du Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillan, hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsua, bi hilabeteko epean.

Guardian, 2021eko martxoaren 25ean

Presidente

JOSEBA FERNÁNDEZ CALLEJA